ULIAZPIN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA, 2023-2027

2025eko abendua

emun
Euskara eta berrikuntza soziala

ULIAZPI

AURKIBIDEA

1. SARRERA 3
2. METODOLOGIA 3
2.1. KEMEN OINARRI 3
2.2. DIAGNOSTIKOA 4
2.2.1 Informazio kualitatiboa: elkarrizketak eta talde fokalak 4
2.2.2 Informazio kuantitatiboa: galdetegiak 5
2.3. DISEINUA: HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA 2026 URTERAKO KUDEAKETA PLANA 5
3. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK 6
3.1. DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA 6
3.2. DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA 7
3.2.1 Kudeaketa 8
3.2.2 Erabilera: zerbitzu hizkuntza 9
3.2.3 Erabilera: lan hizkuntza 10
4. HELBURU ESTRATEGIKOAK 11
5. 2026 URTERAKO KUDEAKETA PLANA 13

1. SARRERA

"Uliazpi Fundazioa" Foru Organismo Autonomoa (aurrerantzean Uliazpi) Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako entitatea da, eta haren helburu nagusia adimen urritasuna duten pertsonen eta beren familien bizi kalitatea garatzen laguntzen duten zerbitzuak eta laguntzak eskaintzea da. Balio gisa jasoa du bere lanak konpromiso etikoan eta sozialean – hizkuntza eta genero berdintasuna – oinarrituta egotea[1].

Uliazpin 263 lanpostu daude eta 6 zentro ditu Gipuzkoako lurraldean banatuta: Zizurkilen, Eibarren, Bergaran, Hondarribian eta bi Donostian. Eta, horretaz gain, bulegoak Donostian. Eragin eremua Gipuzkoako lurralde osoa da, beraz. Baina eguneroko harreman garrantzitsuenak erabiltzaileekin eta haien familiekin dituzte bertako langileek.

Erakunde publikoa den heinean, eta otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren[2] arabera, herritarren eskubideak bermatzeko eta erakunde barruko euskararen erabilera normalizatzeko betebeharra du. Horretarako, hizkuntza plangintza egin behar du; hau da, besteak beste, honako hauek prestatu eta onartu behar ditu: Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, Plan Estrategikoak eta Kudeaketa Planak[3].

Hori dela eta, Uliazpik 2025. urtean ekin dio euskararen erabilera normalizatzeko plana VII. plangintzaldiaren eskakizunetara egokitzeko lanari; betiere, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako Euskararen erabilera plana 2023-2027[4] aintzat hartuta.

Plana diseinatzeko prozesuak bi zati izan ditu: lehenengoa, diagnostikoa egitea Uliazpin euskararen egoera zein den jakiteko, eta bigarrena, plana diseinatzea aurrez egindako diagnostikoan oinarrituta. Bai diagnostikoa eta bai diseinua egiteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak entitateen eskura utzitako KEMEN metodologia eta Saregin aplikazioa erabili dira. Prozesua Euskara Batzordeak bideratu du eta langileen ekarpenak eta iritziak jasotzeko, Saregineko galdetegiaz gain, elkarrizketak eta talde fokalak ere antolatu dira.

Prozesu horren emaitza 2026 eta 2027 urteetarako helburu estrategikoak lehenetsita, 2026ko Kudeaketa Plana zehaztea izan da. Dokumentu honetan jaso dugu egindako prozesua.

2. METODOLOGIA

2.1. KEMEN OINARRI

Sarreran aipatu moduan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara plan kudeatzeko KEMEN marko berria ezarri du, hau da, Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako.

Euskararen normalizazio prozesua kudeatzeko gako eta baliabideak ematen dituen sistema integrala da, administrazio alorreko erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua modu antolatu eta eraginkorrean kudeatzeko.

[1] https://www.uliazpi.eus/eu/nor-gara
[2] https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/03/2401222e.pdf
[3] II kapitulua 5. Artikulua – Plangintza lanabesak eta plangintzaldiak
[4] GFAren Euskararen erabilera plana 2023-2027

KEMEN markoak erabilera planak diseinatzea, kudeatzea eta jarraipena egitea aurreikusi behar duenez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak datuak eskuratzeko eta ebaluatzeko adierazle sistema berri bat ere garatu du. Adierazleek honako ezaugarri hauek dituzte: neurgarriak, adierazgarriak, fidagarriak eta zentzuzkoak dira.

Adierazle sistemak 2 ardatz, 13 arlo eta 48 adierazle jasotzen ditu, baina erakundeei erabilera planak euren errealitate eta beharretara (ezaugarriak, tamaina, gune soziolinguistikoa...) doitzea ahalbidetzen die, ondoen egokitzen zaizkien adierazleak aukeratu ditzaketelako.

Azpiko hauek dira, bakoitzari egozten zaion puntuazio portzentajearekin:

EREMUA	ARDATZA	ARLOA	
1. KUDEAKETA *% 30*		1. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	*% 20*
		2. LIDERGOA	*% 25*
		3. LANGILEAK	*% 20*
		4. HIZKUNTZA-GAITASUNA	-
		5. ESKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	*% 15*
		6. HIZKUNTZA-KLAUSULAK	*% 20*
		GUZTIRA	***% 100***
2. ERABILERA *% 70*	1. ZERBITZU-HIZKUNTZA % 30	7. IRUDIA	*% 20*
		8. HERRITARREKIKO HARREMANAK	*% 80*
		GUZTIRA	***% 100***
	2. LAN-HIZKUNTZA % 70	9. BARNE-HARREMANAK	*% 30*
		10. KANPO-HARREMANAK	*% 20*
		11. PRESTAKUNTZA	*% 15*
		12. BALIABIDE INFORMATIKOAK	*% 15*
		13. SORTZE-HIZKUNTZA	*% 20*
	% 100	***GUZTIRA***	***% 100***
GUZTIRA *% 100*			

EAEko sektore publikoko erakunde guztiek neurtu behar dituzten derrigorrezko adierazleak 14 dira, gainekoak aukerakoak izanik. Hala ere, diagnostikoa egiteko garaian adierazle guztiak betetzea gomendatu denez, halaxe egin da Uliazpiren kasuan.

2.2. DIAGNOSTIKOA

Euskararen egoeraren eta erabileraren diagnostikoa egiteko, informazio kuantitatiboaz gain, informazio kualitatiboa ere jaso da, argazki osoagoa izateko helburuz.

2.2.1 Informazio kualitatiboa: elkarrizketak eta talde fokalak

Datu kuantitatiboak osatzeko, 5 elkarrizketa eta talde fokal egin dira, eta lanpostu ezberdinetan diharduten 18 langilek hartu dute parte:

- Zubieta zentroa (talde fokala eta elkarrizketa)
- Donostia zentroa (elkarrizketa)

- Fraisoro zentroa (talde fokala eta elkarrizketa)

- Bulegoak (2 elkarrizketa)

Elkarrizketa eta talde fokalek ordubete inguru iraun dute eta parte-hartzaileei euskararen egoeraren pertzepzioaz, orain arte egindakoaz eta etorkizunean ikusten dituzten erronkez galdetu zaie.

2.2.2 Informazio kuantitatiboa: galdetegiak

Kudeaketa eta erabilera datuak jasotzeko, bi galdetegi sortu ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak: erakundearena bata eta langileena bestea. Erakundearen galdetegiaren bidez, kudeaketa arloko adierazleak eskuratu dira nagusiki; langileen galdetegiaren bidez, erabilera arlokoak. Adierazle bakoitzak bere balioa du, eta azken emaitzak Saregin tresnak kalkulatu ditu.

Erakundearen galdetegia Euskara Batzordeak bete du. Langileen galdetegia Uliazpiko langile guztiei bidali zaie eta 37k bete dute, 29 emakumek eta 7 gizonek (batek ez du genero identitatea zehaztu). Horrez gain, galdetegia erantzun duten gehienek euskaraz badakite (35ek).

Euskara Batzordea jakitun da laginaren tamaina txikiegia izan dela, baina lehen irakurketa bat egin eta lehentasunak zehazteko balio duela erabaki du. Galdetegia langile gutxik bete izanaren arrazoiak aztertu, eta hurrengo diagnostikoa egiterakoan aintzat hartuko diren hobekuntzak identifikatu dira.

2.3. DISEINUA: HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA 2026 URTERAKO KUDEAKETA PLANA

Diseinua egiteko, diagnostikoaren behin behineko emaitzak aurkeztu zaizkio Euskara Batzordeari, eta arloz arlo aztertu dira, indarguneak eta hobetzekoak identifikatuz. Gogoeta horren ondorioz zehaztu dira helburu estrategikoak eta ekintza nagusiak.

3. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK

3.1. DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA

Hona hemen jasotako informazioarekin osatutako AMIA:

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
• Euskararen ezagutza handia • Euskaraz aritzen diren lantalde eta pertsonak (erreferenteak)	• Erabiltzeko gaitasuna mugatua • Gaztelania erabiltzeko joera eta ohitura handiagoa
• Bilakaera positiboa (barne zein kanpo harremanetan) • Euskararen aldeko kontzientzia kolektiboa	• Euskara planeko ekintzarik ez, ondorioz, motibazioa/gogoa ahulduta
• Zuzendaritza eredugarria euskararen kudeaketan eta erabileran	• Arduradun batzuk euskara erabiltzeko gaitasun mugatua
• Euskara planaren oinarriak indarrean • Hizkuntza eskubideekiko kontzientzia orokorra	• Irizpide argirik ez • Hizkuntza politika eta komunikazio koordinaturik ez

AUKERAK	MEHATXUAK
• Ahozko komunikazioaren garrantzia zaintzaileen egunerokoan • Baliabide teknologikoen garapena (itzultzaileak, AA) • Euskaraz trebatzeko baliabideen eskaintza	• Jarrera kontrajarriak eta desoreka linguistikoak langileen artean • Lan karga: gaztelaniaz azkarrago • Lanaren ezaugarriak (intentsitatea, txandak, ordezkapenak kudeatu beharra...)
• Zentroetako errealitate soziolinguistiko ezberdina	• Zentroei buruzko aurreiritziak
• Erabiltzaile eta familia euskaldunen eskaerak • Langile berriak euskaldunak dira	• Gazteek normalizazio naturala ekarriko dutela pentsatzea • Lan poltsetako langileen ezaugarriak (askok ez dakite euskaraz)
• Balio korporatiboak: profesionaltasun elebiduna	• Inposizioaren pertzepzio soziala

3.2. DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA

Adierazle guztien emaitzak kontuan hartuta, Uliazpiren batez bestekoa %54,8 da. Kudeaketaren batez bestekoa (%43), erabilerarena (%59,9) baino baxuagoa da. Erabileran, ordea, badago aldea zerbitzu hizkuntzaren (%74,5) eta lan hizkuntzaren (%53,62) artean. Beraz, hobetzeko tarterik handiena kudeaketan eta, batez ere, lan hizkuntzan dago. Edonola ere, komeni da emaitzak arloz arlo aztertzea, irakurketa kualitatiboagoa egiteko.

OROKORRA: %54,8 **KUDEAKETA: %42,98**	1. Euskararen kudeaketa orokorra	%20
	2. Lidergoa	%46,5
	3. Langileak	%63,7
	4. Hizkuntza gaitasuna	%87,1
	5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategia	%17,5
	6. Hizkuntza klausulak	%60
ERABILERA Zerbitzu hizkuntza: %74,5	7. Irudia	%82
	8. Herritarrekiko harremanak	%72,6
ERABILERA Lan hizkuntza: %53,62	9. Barne harremanak	%61,4
	10. Kanpo harremanak	%65,6
	11: Prestakuntza	%24,4
	12. Baliabide informatikoak	%55,2
	13. Sortze hizkuntza	%50,7

3.2.1 Kudeaketa

Hona hemen adierazle guztien emaitzak:

KODEA	ADIERAZLEA	%
0	**OROKORRA**	**%54,80**
1	**KUDEAKETA**	**%42,98**
1.0.1	**EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA**	**%20,00**
1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	%50,00
1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	%0,00
1.0.1.3	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	%0,00
1.0.2	**LIDERGOA**	**%46,48**
1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	%57,80
1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezen.	%75,00
1.0.2.6	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.	%0,00
1.0.3	**LANGILEAK**	**%63,69**
1.0.3.7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	%43,30
1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	%77,20
1.0.3.9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak	%72,50
1.0.3.10	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan	%53,20
1.0.3.11	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.	%45,30
1.0.4	**HIZKUNTZA-GAITASUNA**	**%87,15**
1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	%84,90
1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	%79,20
1.0.4.14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	%100,00
1.0.5	**EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA**	**%17,50**
1.0.5.15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.	%25,00
1.0.5.16	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du	%0,00
1.0.6	**HIZKUNTZA-KLAUSULAK**	**%60,00**
1.0.6.17	Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	%100,00
1.0.6.18	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira	%0,00
1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	%100,00
1.0.6.20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	%0,00

Eta jarraian Euskara Batzordeak egindako azterketa:

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• Aurreko plangintzalditik datorren oinarrizko egitura bat badago, eta zerbitzu hizkuntzari dagozkion irizpideak aplikatzen dira • Arduradun teknikoak proaktiboak dira • Langileen parte-hartzea esanguratsua da (%53,2) • Hizkuntza gaitasuna altua da • Kontratu guztiek dituzte hizkuntza klausulak eta eta jarraipena egiten zaie	• Hizkuntza politika ofizialik ez dago • Euskara plana kudeatzeko sistema egituraturik ez dago • Gainerako arduradunen funtzioak definitzeko daude • Langile berriei ez zaie harreran irizpideen berririk ematen • Langileen gogobetetzea • Gutxi komunikatzen da erakundetik kanpora • Hitzarmenetan ez da hizkuntza klausularik txertatzen

3.2.2 Erabilera: zerbitzu hizkuntza

Hona hemen adierazle guztien emaitzak:

KODEA	ADIERAZLEA	%
2	**ERABILERA**	**%59,89**
2.1	**ZERBITZU-HIZKUNTZA**	**%74,50**
2.1.1	**IRUDIA**	**%82,00**
2.1.1.21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.	%85,00
2.1.1.22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude	%100,00
2.1.1.23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.	%50,00
2.1.1.24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	%100,00
2.1.2	**HERRITARREKIKO HARREMANAK**	**%72,63**
2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	%66,40
2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	%87,40
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	%12,50
2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	%100,00
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	%100,00
2.1.2.30	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz	%51,10
2.1.2.31	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz	%50,00

Eta jarraian Euskara Batzordeak egindako azterketa:

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• Webgunea eta argitalpen guztiak elebietan daude • Euskaraz nahi duenari euskaraz erantzuten zaio (ahoz %87,4 eta idatziz %100) • Herritarrak asko euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari (%50) - erreferentzialtasuna	• Finkoak ez diren oharrak gaztelaniaz bakarrik idazten dira batzuetan • Lehen hitza ez da beti euskaraz izaten (eskaintza aktiboa: %66,4) • Agerraldietan %50 egiten da euskaraz • Familientzat antolatzen diren ekitaldi eta ikastaroak gaztelaniaz izaten dira batez ere

3.2.3 Erabilera: lan hizkuntza

Hona hemen adierazle guztien emaitzak:

KODEA	ADIERAZLEA	%
2.2	LAN-HIZKUNTZA	%53,62
2.2.1	**BARNE-HARREMANAK**	**%61,41**
2.2.1.32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira	%28,90
2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	%53,80
2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da	%55,60
2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	%63,10
2.2.1.36	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.	%100,00
2.2.1.37	Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar.	%75,00
2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	%66,10
2.2.2	**KANPO-HARREMANAK**	**%65,61**
2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	%68,00
2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	%75,00
2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	%51,40
2.2.2.42	Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	%50,00
2.2.3	**PRESTAKUNTZA**	**%24,38**
2.2.3.43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	%15,00
2.2.3.44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.	%31,40
2.2.3.45	Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.	%25,00
2.2.4	**BALIABIDE INFORMATIKOAK**	**%55,20**
2.2.4.46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	%56,50
2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.	%53,90
2.2.5	**SORTZE-HIZKUNTZA**	**%50,70**
2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	%50,70

Eta jarraian Euskara Batzordeak egindako azterketa:

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• Zentraletako bilerak euskaraz dira • Lankideen arteko ahozko harremanetan euskara erabiltzen da (%53,8 formala; %55,6 ez-formala) • Dokumentazio administratibo gehiena euskaraz dago • Kanpoko erakundeekin egiten da euskaraz ahoz (%68 publikoak; %50 pribatuak) • Erdia sortzen da euskaraz (beti edo ia beti euskaraz, edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago 22 erantzun)	• Lan bilerak gaztelaniaz izaten dira nagusiki (%29) • Laneko hizkuntza-paisaia gaztelaniaz ere badago (%66) • Idatzizko lan komunikazio batzuk gaztelaniaz bakarrik bidaltzen dira (%63 euskaraz) • Lege dokumentazio zenbait eta gizarte txostenak gaztelaniaz egiten dira • Enpresa pribatuei bidaltzen zaien dokumentazio guztia ez dago euskaraz • Langileek prestakuntza gaztelaniaz jasotzen dute nagusiki • Hizkuntza prestakuntzarik ez da eskaintzen • Baliabide informatiko guztiak ez daude euskaraz (%56) eta erdiek erabiltzen dituzte euskaraz (%54)

4. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Aurrez aipatu bezala, Uliazpik Gipuzkoako Aldundiaren erabilera planean oinarrituta egin du berea. Plan horren zutabe nagusiak honakoak dira: *izaera estrategikoa izatea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea hizkuntza berdintasuna helburu izanik eta administrazioa eredu eta erreferentziazko gune izatea.*

Kudeaketa eta erabilera eremuetarako erronka hauek jasotzen ditu planak:

- Kudeaketa: erantzukidetasunean oinarrituta, euskara lehenbiziko aukera izateko kudeaketa sistema antolatzea.

- Erabilera: gipuzkoarren artean euskararen erabilera bermatzen duen eta hizkuntza gutxituek dituzten zailtasunei aurre egiteko gaitasuna duen erakundea izatea, euskal herriko gainontzeko erakundeentzat erakusleiho bihurtuz.

Erronka horiei erantzuteko hainbat helburu estrategiko zehaztu dira. Uliazpik ez ditu guztiak garatuko 2026 eta 2027 urteetan. Hurrengo taulan jaso dira landuko diren helburuak eta dagozkien adierazleak:

ERRONKA ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK	Kemen adierazlea	Hasiera	Aurreikuspena	Amaiera	Aldea	KRONOGRAMA				
						202	202	202	202	202
1. KUDEAKETA: ERANTZUKIDETASUNEAN OINARRITUTA, EUSKARA LEHENBIZIKO AUKERA IZATEKO KUDEAKETA SISTEMA ANTOLATZEA										
1.1 EUSKARAREN KUDEAKETA:	1.0.1	%20	%30		-%30					
1.1.3 Euskararen Erabilera Plana erakundearen kudeaketa sistema orokorrean txertatzea.	1.0.1.1	%50	%75		-%75					
1.1.4 Euskararen Erabilera Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema eta egitura iraunkor bat sortzea.	1.0.1.2	%0	%50		-%50					
1.1.5 Euskararen Erabilera Planak kudeatzeko informazio eta komunikazio sare egonkor bat sortzea.	1.0.3.11	%45	%60		-%60					
1.2 LIDERGOA:	1.0.2	%47	%60		-%60					
1.2.2 Erabilera planean oinarrituta, departamentuetako arduradun politiko eta teknikoek era proaktiboan parte hartzea kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	1.0.2.4	%58	%75		-%75					
1.2.3 Arduradunak eredugarri izatea, trakzio lana eginez.	1.0.2.6	%0	%75		-%75					
1.3 LANGILEAK:	1.0.3	%64	%75		-%75					
1.3.1 Aldundiak baldintza egokiak sortzea, langileek euskaraz gero eta erosoago lan egiteko.	1.0.3.9	%73	%90		-%90					
1.3.2 Langileek dagozkien hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea.	1.0.3.8	%77	%90		-%90					
1.3.3 Langile berriei harrera egiterakoan hizkuntza politikaren ardatzen berri ematea.	1.0.3.7	%43	%75		-%75					
1.3.5 Langileentzako ikastaroetan euskarazko formazio saioen ehunekoa handitzea, laneko sortze hizkuntzarekin modu koherenteagoan lerrokatzeko.	2.2.3.43	%15	%20		-%20					
1.4 HIZKUNTZA KLAUSULAK:	1.0.6	%60	%90		-%90					
1.4.1 Hizkuntza klausula egokiak txertatzea, kontratu mota bakoitzaren xedeari, zerbitzuaren izaerari eta hartzaileei egokituta.	1.0.6.18	%0	%75		-%75					
2. ERABILERA - ZERBITZU HIZKUNTZA: GIPUZKOARREN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA BERMATZEN DUEN ETA HIZKUNTZA GUTXITUEK DITUZTEN ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO GAITASUNA DUEN ERAKUNDEA IZATEA, EUSKAL HERRIKO GAINONTZEKO ERAKUNDEENTZAT ERAKUSLEIHO BIHURTUZ.										
2.1 IRUDIA	2.1.1	%82	%90		-%90					
2.1.2 Aldundiaren irudi digitalean euskara lehentasunezko hizkuntza izatea (webguneak, sare sozialak...).	2.1.1.21	%85	%90		-%90					
2.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK:	2.1.2	%73	%80		-%80					
2.2.1 Herritarrekiko harremanetan euskara lehentasunezko hizkuntza izatea.	2.1.2.25	%66	%75		-%75					
2.2.2 Aldundiak baldintza egokiak sortzea, gero eta herritar gehiagok euskarazko hautua egiteko.	2.1.2.31	%50	%60		-%60					
3. ERABILERA - LAN HIZKUNTZA: GIPUZKOARREN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA BERMATZEN DUEN ETA HIZKUNTZA GUTXITUEK DITUZTEN ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO GAITASUNA DUEN ERAKUNDEA IZATEA, EUSKAL HERRIKO GAINONTZEKO ERAKUNDEENTZAT ERAKUSLEIHO BIHURTUZ.										
3.1 BARNE HARREMANAK:	2.2.1	%61	%65		-%65					
3.1.1 Ahoz eta idatziz euskaraz funtzionatzen duen erakundea izatea.	2.2.1.33	%54	%60		-%60					
3.2 KANPO HARREMANAK:	2.2.2	%66	%70		-%70					
3.2.2 Entitate pribatuekiko harremanetan euskararen erabilera sustatzea, eta, ulermena eta adostasuna bermatuta daudenean, euskaraz egitea.	2.2.2.42	%50	%75		-%75					
3.3 SORTZE HIZKUNTZA:	2.2.5	%51	%55		-%55					
3.3.1 Euskaraz sortu daitekeen guztia euskaraz sortzea.	2.2.5.48	%51	%55		-%55					
3.3.3 Itzulpen politika erabilera planaren helburuekin lerrokatzea.	2.2.5.48	%51	%55		-%55					

5. 2026 URTERAKO KUDEAKETA PLANA

Jarraian ikus daiteke 2026 urterako zehaztu den Kudeaketa Plana:

Helburu / ekintzen zk.	HELBURU ETA EKINTZAK	Adierazlea	Epea	Arduraduna	EGOERA			Ekintzen Betetze Maila
					Hasierako egoera	Aurreikus. egoera	Bukaerako egoera	
1. KUDEAKETA: ERANTZUKIDETASUNEAN OINARRITUTA, EUSKARA LEHENBIZIKO AUKERA IZATEKO KUDEAKETA SISTEMA ANTOLATZEA								
1.1 EUSKARAREN KUDEAKETA:								%0
1.1.3 Euskararen Erabilera Plana erakundearen kudeaketa sistema orokorrean txertatzea.								%0
1	Hizkuntza irizpideak berrikusi eta egokitu, eta jarraipena egiteko modua zehaztu	HI dokumentua	otsaila	EB	%0	%100		**%0**
2	Hizkuntza irizpideak onartu eta Sareginera igo	Onarpena	martxoa	Zuzendaritza	%0	%100		**%0**
1.1.4 Euskararen Erabilera Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema eta egitura iraunkor bat sortzea.								%0
1	Euskara Batzordearen funtzionamendu araua idatzi (funtzioak, bileren maiztasuna...)	Araua	otsaila	EB	%0	%100		**%0**
2	Euskara Batzordearen funtzionamendu arauaren betetze maila baloratu	Betetze-mailaren %	abendua	EB	%0	%100		**%0**
1.1.5 Euskararen Erabilera Planak kudeatzeko informazio eta komunikazio sare egonkor bat sortzea.								%0
1	Hizkunza Plangintza eta irizpideak kanpoan komunikatu (webgunea, aldizkaria...)	Komunikazio kop.	abendua	EB	%0	%100		**%0**
2	Uliberrin euskarari buruzko atal finkoa jarri	Komunikazio kop.	abendua	EB	%0	%100		**%0**
3	Euskararen normalizazioaren inguruan egiten diren foro eta jardunaldien berri izateko kanaletara harpidetu	Parte-hartze kop.	abendua	EB	%0	%100		**%0**
4	Zentroetan praktika onak identifikatu eta Euskara Batzordean aztertu	Praktika kop.	abendua	EB	%0	%100		**%0**
1.2 LIDERGOA:								%0
1.2.2 Erabilera planean oinarrituta, departamentuetako arduradun politiko eta teknikoek era proaktiboan parte hartzea kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.								%0
1	Arduradun politikoari hizkuntza plangintzaren bilakaeraren berri eman urtean bitan	Betetze-mailaren %	abendua	EB	%0	%100		**%0**
1.2.3 Arduradunak eredugarri izatea, trakzio lana eginez.								%0
1	Zentro eta unitate arduradunekin bilera bat egin euren funtzio eta egitekoak zehazteko	Betetze-mailaren %	otsaila	EB	%0	%100		**%0**
2	Zentro eta unitate arduradunekin bilera bat egin euren funtzio eta egitekoen betetze mailaren balorazioa egiteko	Betetze-mailaren %	abendua	EB	%0	%100		**%0**
1.3 LANGILEAK:								%0
1.3.1 Aldundiak baldintza egokiak sortzea, langileek euskaraz gero eta erosoago lan egiteko.								%0
1	Korrikan parte hartu	Parte-hartze kop.	martxoa	EB	%0	%100		**%0**
2	Euskararen eguneko ekintzak antolatu	Parte-hartze kop.	abendua	EB	%0	%100		**%0**
3	Mintzasaioak antolatzea aztertu, proba pilotu bat eginda	Parte-hartze kop.	maiatza	EB	%0	%100		**%0**
4	Itzultzaile neuronalak eta AA erabiltzeko baliabide praktikoak irakasteko saioak antolatu	Parte-hartze kop.	iraila	EB	%0	%100		**%0**
5	Euskara ulertzen ez duten langileentzako oinarrizko hiztegiak banatu	Hiztegi kop.	iraila	EB	%0	%100		**%0**
1.3.2 Langileek dagozkien hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea.								%0
1	Kudeaketa Plana eta hizkuntza irizpide berrituak langile guztiei aurkeztu, lan bilerak aprobetxatuta	Bilera kop.	uztaila	EB	%0	%100		**%0**
1.3.3 Langile berriei harrera egiterakoan hizkuntza politikaren ardatzen berri ematea.								%0
1	Langile etorri berriei harrera egiteko prozeduran, euskara plana gehitu	Prozedura	maiatza	EB, GB	%0	%100		**%0**
2	Harrera prozeduraren betetze maila baloratu	Betetze-mailaren %	abendua	EB, GB	%0	%100		**%0**
1.3.5 Langileentzako ikastaroetan euskarazko formazio saioen ehunekoa handitzea, laneko sortze hizkuntzarekin modu koherenteagoan lerrokatzeko.								%0
1	Euskaraz eskaintzen diren prestakuntza saioen kopurua gehitu, zein aukera dauden aztertuta	Euskazko saio kop.	maiatza	EB, GB	%0	%100		**%0**
1.4 HIZKUNTZA KLAUSULAK:								%0
1.4.1 Hizkuntza klausula egokiak txertatzea, kontratu mota bakoitzaren xedeari, zerbitzuaren izaerari eta hartzaileei egokituta.								%0
1	Hitzarmenetan hizkuntza klausulak txertatu	Betetze-mailaren %	maiatza	EB	%0	%100		**%0**

Helburu / ekintzen zk.	HELBURU ETA EKINTZAK	Adierazlea	Epea	Arduraduna	EGOERA			Ekintzen Betetze Maila
					Hasierako egoera	Aurreikus. egoera	Bukaerako egoera	
2. ERABILERA - ZERBITZU HIZKUNTZA: GIPUZKOARREN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA BERMATZEN DUEN ETA HIZKUNTZA GUTXITUEK DITUZTEN ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO GAITASUNA DUEN ERAKUNDEA IZATEA, EUSKAL HERRIKO GAINONTZEKO ERAKUNDEENTZAT ERAKUSLEIHO BIHURTUZ.								
2.1 IRUDIA								%0
2.1.2 Aldundiaren irudi digitalean euskara lehentasunezko hizkuntza izatea (webguneak, sare sozialak...).								%0
1	Errotulu eta oharren diagnostikoa egin, eta gaztelaniaz bakarrik daudenk euskaraz ere jarri	Betetze-mailaren %	martxoa	EB	%0	%100		**%0**
2	Guneetan identifikagarri fisikoak jarri "Hemen euskaraz" edo antzekoak	Euskarri kop.	apirila	EB	%0	%100		**%0**
3	IZFEri Uliazpiren email sinadura sortzeko eta bertan "Nirekin euskaraz" edo antzeko mezua gehitzeko eskatu	Sinadura kop.	apirila	EB	%0	%100		**%0**
2.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK:								%0
2.2.1 Herritarrekiko harremanetan euskara lehentasunezko hizkuntza izatea.								%0
1	Lehen hitza euskaraz egitearen garrantziaz eta betebeharraz jabetzeko pilulak bidali langile guztiei	Pilula Kop.	uztaila	EB	%0	%100		**%0**
2	Familientzako saio eta formazioetan teknologia berriak erabiltzea aztertu, euskaraz izan daitezen	Euskarazko saio kop.	urria	EB	%0	%100		**%0**
2.2.2 Aldundiak baldintza egokiak sortzea, gero eta herritar gehiagok euskarazko hautua egiteko.								%0
1	Familiei jakinarazpen bat bidali Uliazpirekin euskaraz aritzeko gonbidapena bidaliz	Erantzun kop.	apirila	EB	%0	%100		**%0**
2	Gizarte txostenak euskaraz nahi dituzten galdetu familiei	Erantzun kop.	apirila	EB	%0	%100		**%0**
3	Gizarte txostenak euskaraz bidali hala nahi dituzten familiei	Betetze-mailaren %	abendua	EB	%0	%100		**%0**
3. ERABILERA - LAN HIZKUNTZA: GIPUZKOARREN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA BERMATZEN DUEN ETA HIZKUNTZA GUTXITUEK DITUZTEN ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO GAITASUNA DUEN ERAKUNDEA IZATEA, EUSKAL HERRIKO GAINONTZEKO ERAKUNDEENTZAT ERAKUSLEIHO BIHURTUZ.								
3.1 BARNE HARREMANAK:								%0
3.1.1 Ahoz eta idatziz euskaraz funtzionatzen duen erakundea izatea.								%0
1	Euskaraz aritzen diren guneak/lantaldeak identifikatu	Talde kop.	iraila	EB	%0	%100		**%0**
2	Eusle: dinamika eta aukerak aztertu	Erabakia	urria	EB	%0	%100		**%0**
3	Zaintzaileei eguneroko aplikazioko oharrak ele bietan idazteko proposamena egin, eta baliabideak eskaini	Erabilera	azaroa	EB	%0	%100		**%0**
4	Langileei aplikazioak euskaraz erabil ditzaten proposatu	Mezua	martxoa	EB	%0	%100		**%0**
5	IZFEri galdetu aplikazioen erabilera datuak zein diren	Erabilera %	apirila	EB	%0	%100		**%0**
6	Aplikazioak euskaraz erabiltzen ez dituzten euskaldunei, gogorarazpena bidali	Mezua	ekaina	EB	%0	%100		**%0**
3.2 KANPO HARREMANAK:								%0
3.2.2 Entitate pribatuekiko harremanetan euskararen erabilera sustatzea, eta, ulermena eta adostasuna bermatuta daudenean, euskaraz egitea.								%0
1	Enpresa pribatuei bidaltzen zaien dokumentazioaren azterketa egin, zer euskaratu daitekeen ikusteko	Dok. Azterketa	iraila	EB	%0	%100		**%0**
3.3 SORTZE HIZKUNTZA:								%0
3.3.1 Euskaraz sortu daitekeen guztia euskaraz sortzea.								%0
1	Euskaraz sortzeko egon daitezkeen zailtasuna identifikatu	Emaitza	azaroa	EB	%0	%100		**%0**
3.3.3 Itzulpen politika erabilera planaren helburuekin lerrokatzea.								%0
1	Itzulpenen politika zehaztu epeak eta testuaren terminologia aintzat hartuta	Erabakia	azaroa	EB	%0	%100		**%0**
2	Terminologia hiztegiak sortu/garatu	Hiztegia	azaroa	EB	%0	%100		**%0**